



Kolpea Soviet Batasunean

Estatu kolpeak porrot egin du azkenean

George Bushen arabera Mikhail Gorbaxovek jadanik SESBeko boterea berreskuratu du

Atzoko 14.30etan (Moskuko ordutegian) iritsi zen berria: 72 ordu lehenago emaniko Estatu kolpeak porrot egin zuten eta Gorbaxov boteretik kendu zutenek ihes egin zuten. Mikhail Gorbaxovek boterea hartu duela berriro adierazi zuen George Bushen, berarekin telefonoz hitzegitea lortu ondoren. Beraz, gauzak «lehen zeuden bezala» itzuli dira.

MOSKU

Boris Ieltsinen buruzagitzak aurrera eramano kolpearen aurkako mugimenduak garaitu egin zuten perestroikarekin amaitu nahi izan zuten agintarien aurka. Dena den, hau ez da izan Ieltsinen garaipen eskusiboa, laguntza ugari jaso bait du, perestroikaren sortzaileengandik hasita, eta beste errepublikek lagunduta, nazioarteko Estatuak kolpistei eginiko presioa baztertu gabe. Kolpeak porrot egin du kolpistek inongo laguntzarik jaso ez dutelako.

Boris Ieltsinek Moskuko hiritarrei dei egin zien Estatu Komitea osatzen zuten partaideei Estatu kolpeak porrot egin ondoren ihesi joaten ez uzteko. Berriak iritsi ziren Kriutxkov, KGBko buruzagiak limusina batean aldegin zuela maleta askorekin. Ordu batzuk beranduago Dimitri Iazov Defentsa ministroak bere burua hil



Estatu kolpea amaitu da, baina herenegun gaueko borroken aztarnek erakutsi dute zer gertatu den.

SEAN RAMSAY

zuelaren berri eman zuen Ria agentzia soviatarrek.

Estatu kolpearen amaieraren berri ofiziala Tass agentziak eman zuen. Orduarte Larrialdirako Estatu Komitearen berriemateak bere inde-

pendentzia lortu zuen beste komunikabide soviatar guztiak bezala, eta zentsuraren amaierarekin normaltasunera itzuli ziren.

Moskun etxeratze deialdia indargabetu zuten, eta SESBeko Fiskal Nagusiak Larrialdirako Estatu Komitea osatzen zuten partaideen aurka prozesua irekiko duela iragarri zen, «beren ekintzetan Estatuaren aurkako krimena egin dutela aztarnak daudelako» Tass agentziaren arabera. Ikerketa erakunde honetako fiskalen talde batek egingo du.

GORBATXOVEN NONDIK NORAKOAK

Mikhail Gorbaxov non egongo ote zen eta noiz itzulioko ote zen Moskura zalantzak egon ziren atzo. Batzuek zerbait esanez gero, beste batzuek gezurtatatu egiten zuten. Ez zegoen beraz, berri zurririk Gorbaxoven nondik norakoaz, George Bushen berarekin hitzegin zuela adierazi arte. Lev Sukhanov-ek, Boris Ieltsinen kontseilariak adierazi zuen atzo gauean edo bestela gaur goizean itzuliko zela Moskura, hala adierazi bait zion Iel-

Bush: «Egoerak bide egokia hartu eta horrela jarrai dezan nahi dut»

KENNEBUNKPORT

George Bush-ek, Estatu Batuetako lehendakariak Soviet Batasuneko Estatu kolpeak porrot egin zuelaren berria jakin bezain laster prentsaurrekoa eman zuen atzo arratsaldean. Lehendakari estatubatuarrentzat, ordea oraindik «goizegi» zen Estatu kolpea bukatutzat jotzea, eta denborari iragaten utzi behar zitzaiola gomendatu zuen.

Dena den, Bushen adierazi zuen «egoerak norabide egokia hartu duela eta horrela jarrai dezan nahi duela». Lehendakari iparramerikarrak atzo goizean Boris Ieltsin lehendakari errusiarrarekin hitzegin zuen baina berriro ere ezin izan zuten Mikhail Gorbaxov lehendakari soviatarrekin hitzegiterik lortu.

Bushen iritziz, «Estatu kolpea eman zutenek herriaren boterea gutxietsi egin dute eta ez dute kontutan hartu Soviet Batasunean demokraziak eta askatasunak izan duten eragina».

George Bushen Kennebunkport-en, Maine Estatuan eman zuen prentsaurrekoa, atzo Washington-en egon ondoren oporrak iragaten dituen lekura itzuli bait zen berriro.


Lehendakari iparramerikarrak Boris Ieltsinek izandako elkarriketaren berri ere eman zuen eta adierazi zuen berak ohartu ziola oraindik «SEB-en ez dela mehatxu militarra desagertu» eta horregatik berak ere dudak zituela Estatu kolpearen amaieraren berri hain azkar emateko.

Bushek behin eta berriro errepikatu zuen Estatu kolpea lehenago galaraziko litzatekeela berak Mikhail Gorbaxovekin kolpea eman bezain laster hitzegin izan balu eta adierazi zuen «EEBBek berriro lehendakari-tza eskuratu dezala nahi dutela».

Ieltsinetaz ere hitzegin zuen eta adierazi zuen lehendakari errusiarrak «izugarritzko ausardia agertu duela eta mundu guztiaren begirunea irabazi duela, lehen ez bezala. Lehendakari iparramerikarrak etorkizunari buruz hitzegiterakoan esan zuen «dagoeneko ez dagoela Gorbaxov eta Ieltsinen arteko borrokarik, azken honek lehendakari soviatarrenganako alkartasuna eta Konstituzioaren oinarri nagusienei begirunea erakutsi bait du».

Bush ziur agertu zen adierazterakoan «demokraziak izugarritzko bultzada izango duela hemendik aurrera SESB-en».

Galtzaileak eta Garaileak



Mikhail Gorbaxov: Estatu Kolpeak iraun dituen hiru egun eskasetan Krimean atxilotua izan dela diote azken informazioek. Garaile baina galtzileak gertatu daiteke Larrialdirako Estatu Komiteak agintetik bota ondoren Ieltsin izan bait da autoritatea eta boterea mantentzen lagundu eta neurri batean kendu ere egin diona. Zurruruek kontserbadoreen ekintzaren berri aurretik zuela ere leporatu diote, baina azken finean egoeraren eragile den perestroikaren ekarpenak ezin dizkio inork ukatu orain.



Dmitri Iazov: Iraganaren defendatzaile argia zen eta garbi agertu zuen erreformen aurkako iritzia. Armada soviatarren sektore berritzaileen kritikak jaso zituen honegatik. Gorbaxov berak proposatu zuen Defentsa ministro izateko eta hara hemen ordaina. Armada eta Alderdiak bat egiten duten puntu horretan kokatu daiteke, aintzinako sistema, errejimen eta moduak defendatuz. Gorbaxovek, sinesten zuen guztiaren amaiera suposatzen zuenez aurka ekin zuen, azkenean bere buruari tiro emateko.

Gennadi Ianaiev: SESBko lehendakariorde aukeratua izan zen kontserbadoreen laguntzaz eta Estatu Kolpearen ondoren Gorbaxoven kargua hartzean aparatua eta Alderdiaren zama guztia hartu du bere gain. Erreformistek «titere» deitu diote, eta zentzu batean hala da. KGBko buru den Kriuchov eta Iazov Armada erakundeko buruak dira benetan kolpearen bidea ezarri dutena. Ianaiev azkenean baliorik gabe gelditu den «legitimitate eta konstituzionaltasun» itxura mantentzeko Komitearen aitzakia besterik ez zen.

Boris Ieltsin: Jarrera erradikaltik Estatu Kolpea eragotzi duena izan daitekeela baieztatu daiteke beldurrik gabe. Erreforma politikoaren garapenean metodoari eta bideari buruz bat ez zetozen arren orain arte lortutakoa mantendu eta erreformaren bidetik jarraitzeko aukerari eusteko Gorbaxoven alde azaldu da hitz eta ekintzaz. Perestroikaren salbatzailea eta Kolpe ondorengo garaile garbia da (nazioarteko komunitatearen laguntzaz) eta hemendik aurrera errepublikaren interesen defendatzaile ziurra.



✓ Larrialdirako Estatu Komiteko partaide batzuk Krimeara joan ziren Gorbaxovi barkamena eskatzera eta epaituak izan ez daitezen erregutuzera.

tsinek Gorbaxovekin telefonoz eginitako elkarriketaren berri ematera koan.

Estatu kolpean parte hartu zuten Anatoli Lukianov Soviet Gorenaren lehendakaria eta Vladimir Ibxko alderdi komunistaren idazkariordea atzo Krimeara joan ziren Arkadi Bolski Kooperatiben Elkarteko presidentek azaldu zuenez. Bidaia hau Mikhail Gorbaxovekin biltzeko egin zela aipatu zuten zenbait iturriek. Izan ere ez zegoen garbi Gorbaxov Krimean edo Moskun aurkitzen zen. Dena dela estatu kolpea burutu zutenek akordio batetara iritsi nahian zebiltzela aipatu zuten iturri ez ofizialek. Kazahstaneko agentzien arabera berriz, atzo arratsaldean kolpistak Foros, Krimeako hirian zeuden Gorbaxovekin hitzegiteko asmoz.

Kazahstaneko presidentek Gorbaxovi kolpistekin ez negoziatzeko eskatu zion. Mugimendu guzti hauekin kolpistek Soviet Batasuneko presidentea zenaren barkamena lortu nahiko lukete. Estatu kolpearen ondoren osatu zuten komitearen partaide guztiak, Valentin Pavlov lehen ministraria eta Boris Pugo barne Arkadik esan zuenez atzo goizean ministraria ezik, atzo atxilotu zituzten.

Garbi dagoen gauza bakarra Estatu kolpearekin amaitu dela eta ondoren zer gertatuko den gauzak garbi ez daudela.